

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2727

*AGINDUA, 2026ko ekainaren 2koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena. Agindu horren bidez, Bizkaiko Golkon izurde arruntaren (*Delphinus delphis*) eta beste zetazeo txiki batzuen nahi gabeko harrapaketak murrizteko, arrantza-jarduera aldi baterako geldiarazteko 2026. urterako laguntzen oinarriak ezartzen dira eta deialdia egiten da.*

Arrantza-jarduerak garatzean, noizean behin eta arrantza-aparailuaren arabera, arrantza-ontziek arrantzaren xede ez diren beste itsas espezie batzuei kalte egiten diete, baita Europako legediak kontserbatzen eta babesten dituen ere, itsas ingurune bera partekatzen dutelako. Hori da, hain zuzen, Bizkaiko Golkoko hainbat zetazeo-espezie txikirekin gertatzen dena. Azken urteotan arreta berezia jaso dute, Frantziako kostaldean hondartze kopuruaren gorakada nabarmena hauteman delako, batez ere neguko hilabeteetan; askotan, arrantza-aparailuen ondoriozko kalteen zantzuak agertzen dira, adibidez, sareen markak gorputzean.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2013ko abenduaren 11ko 1380/2013 Erregelamenduak ezartzen duenez, Arrantza Politika Erkidearen helburuetako bat da bermatzea arrantza-jarduerak ingurumenaren aldetik jasangarriak direla epe luzera eta koherentziaz kudeatzen direla, horrela, onura ekonomikoak, sozialak eta enpleguak sortzeko, eta elikagaiak eskuragarri egon daitezen laguntzeko –Erregelamendu horrek, Arrantza Politika Erkideari buruzkoak, Kontseiluaren (EE) 1954/2003 eta (EE) 1224/2009 Erregelamenduak aldatzen ditu, eta Kontseiluaren (EE) 2371/2002 eta (EE) 639/2004 Erregelamenduak eta Kontseiluaren 2004/585/EE Erabakia indargabetzen ditu–. Bestalde, ezartzen du politika horrek ikuspegi ekosistemiko bat aplikatuko diola arrantzaren kudeaketari, arrantza-jarduerak itsas ekosisteman ahalik eta kalte gutxien eragiten dutela bermatzeko, eta datu zientifikoak jasotzen lagunduko duela.

Europar badira neurri batzuk ezarrita espezie kalteberen ustekabeko harrapaketak murrizteko: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1241 (EB) Erregelamenduan datoz, XIII. eranskinean. Erregelamendu hori arrantza-baliabideak kontserbatzeari eta itsas ekosistemak neurri teknikoen bidez babesteari buruzkoa da, eta arau hauek denak aldatzeko ere erabili zen: Kontseiluaren 2019/2006 (EE) eta 1224/2009 (EE) erregelamenduak; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1380/2013 (EB), 2016/1139 (EB), 2018/973 (EB), 2019/472 (EB) eta 2019/1022 (EB) erregelamenduak. Azken erregelamendu horren bidez, bertan indarrak gabe utzi ziren Kontseiluaren beste erregelamendu hauek: 894/97 (EE), 850/98 (EE), 2549/2000 (EE), 254/2002 (EE), 812/2004 (EE) eta 2187/2005 (EE).

Batzordearen 2025eko abuztuaren 11ko 2025/2593 (EB) Erregelamendu Delegatuak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1241 (EB) Erregelamendua aldatu du, Bizkaiko golkoan izurde arruntaren (*Delphinus delphis*) eta beste zetazeo txiki batzuen ustekabeko harrapaketak murrizteko neurrien luzapenez den bezainbatean, eta 4. puntu berri bat dakar gainera: «Neurri bereziak Bizkaiko Golkorako (CIEMen 8. azpideremua)». Honako hau jasotzen du 1. apartatuan, «Arrantza debekatzea» izenekoan: «Debekatuta dago Frantziako uretan arrantza egitea Frantziako eremu ekonomiko eskusiboaren kanpoko mugaraino, IENBren 8. azpideremuaren barruan, 2026ko urtarrilaren 22tik otsailaren 20ra bitartean, ontzian honako sare hauek daramatzaten 8 metro baino gehiagoko ontzientzat: arrantza pelagikoko sareak (PTM, OTM), bikoteko hondoko arraste-sareak (PTB), ingurasare ixtokodunak (PS), hondoko mailasareak (GNS), tresmailak (GTR) edo mailasare eta tresmail-sare konbinatuak (GTN)».

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko uztailaren 7ko (EB) 2021/1139 Erregelamenduak ezarritako Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsaren (EIAAF) bidez, konpentsazio bat eman ahal izango da arrantza-jarduerak aldi baterako eten behar izatearen truke, Erregelamenduan bertan aurreikusten diren inguruabar jakin batzuetan. Hala ondorioztatzen da 21.2.c) artikuluan agintzen dena kontuan hartuta, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 11ko (EB) 1380/2013 Erregelamenduaren 13. artikuluekin lotuta (arrantza-politika erkideari buruzkoa).

Abenduaren 29ko 1173/2015 Errege Dekretua (Europako Itsas eta Arrantza Funtsa garatzekoa, arrantza-jarduera behin betiko eta aldi baterako eteteko laguntzei buruzkoa) arrantza-sektorea antolatzeko oinarritzko legeetako bat da, haren azken xedapenetako lehenengoari jarraikiz. ED horren 12.1.a) artikulua ezartzen duenez, arrantza-jarduera aldi baterako eten behar izatea konpentsatzeko laguntza eman ahal izango da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko uztailaren 7ko (EB) 2021/1139 Erregelamenduan (Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsa ezartzen duena) ezarrita dauden kasuen esparruan. Duela gutxi, abenduaren 5eko 1013/2023 Errege Dekretuak aldatu egin du abenduaren 29ko 1173/2015 Errege Dekretua; hark armadoreentzako baremoak eguneratzen ditu, arrantza-jarduera aldi baterako eten behar izatearen ondoriozko kalte-ordainak kalkulatzeko.

Era berean, abenduaren 29ko 1173/2015 Errege Dekretuaren 17.1.b) artikulua araberak, laguntzaren xede den arrantza-tokian ontziak egiten duen arrantza-jarduera ezartzen du arrantza-jarduera aldi baterako geldiarazteko laguntzetarako balorazio-irizpide gisa. Kasu honetan, laguntzen onuradun izango dira 8 metro baino gehiagoko ontziak, baldin eta aparailu hauek badituzte: arrantza pelagikoko sareak (PTM, OTM), bikoteko hondoko arraste-sareak (PTB), ingurasare ixtekodunak (PS), hondoko maila-sareak (GNS), tresmailak (GTR) edo maila-sare eta tresmail-sare konbinatuak (GTN), betiere Frantziako uretan gutxienez 1 eguneko jarduera izan badute, Frantziako eremu ekonomiko eskusiboaren kanpoko mugaraino, IENBren 8. azpierenmuaren barruan, 2024ko urtarrilaren 22tik otsailaren 20ra bitartean eta 2025eko urtarrilaren 22tik otsailaren 20ra bitartean.

Agindu honen bidez, EAEko flotak arrantza-jarduera aldi baterako eten behar izana konpentsatzeko laguntzen deialdia egiten da, Batzordearen 2025eko abuztuaren 11ko (EB) 2025/2593 Erregelamendu Eskuordetuan ezarritakoaren ondorioz. Erregelamendu horrek (EB) 2019/1241 Erregelamenduaren XIII. eranskinean datozen neurriak luzatu eta aldatu egiten dira, eta 4. puntu berria gehitzen du: «Debekatuta dago Frantziako uretan arrantza egitea Frantziako eremu ekonomiko eskusiboaren kanpoko mugaraino, IENBren 8. azpierenmuaren barruan, 2026ko urtarrilaren 22tik otsailaren 20ra bitartean, ontzian honako sare hauek daramatzaten 8 metro baino gehiagoko ontzientzat: arrantza pelagikoko sareak (PTM, OTM), bikoteko hondoko arraste-sareak (PTB), ingurasare ixtekodunak (PS), hondoko maila-sareak (GNS), tresmailak (GTR) edo maila-sare eta tresmail-sare konbinatuak (GTN)».

Agindu hau honako hauetan xedatutakoaren mende dago: 7/2025 Legea, abenduaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen; 23/2023 Legea, abenduaren 21koa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa; eta bi arau hauetan bildutako oinarritzko erregulazioa: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21koa, azken horren erregelamendua onartzen duena.

Azkenik, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 7.1 artikulua xedatzen duenarekin bat etorritik, jasota utzi behar da laguntzen programa hau Elkadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 2026-2028rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan dagoela jasota (plan hori 2026ko martxoaren 4ko Aginduaren bidez onartu zen).

Plan horretan, jarduera-ildo hori beren beregiz dago jasota, arrantza-flota egokitu eta haren jarduera hobeto kudeatzeko, hartara jasangarriagoa izan dadin gizarterako, ekonomiarako eta ingurumenerako, planean definitutako helburu estrategikoak lortzen lagunduz.

Ekainaren 30eko 7/1981 Legeak, Jaurlearitzari buruzkoak, 26.4 artikuluan arautzen du sailburuen eskumena dela, besteak beste, eta Jaurlearitzako kide diren aldetik dituzten eskumenak galarazi gabe, haien sailei dagozkien gaietan administrazio-xedapen orokorrak eta ebazpenak ematea.

Hori dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— 2026rako oinarriak eta deialdia.

2026ko ekitaldiko oinarriak ezartzea eta deialdia egitea, Bizkaiko Golkoan izurde arruntaren (*Delphinus delphis*) eta beste zetazeo txiki batzuen nahi gabeko harrapaketak murrizteko asmoz arrantza-jarduera aldi baterako eten behar izan duten eta oinarri-portua Euskal Autonomia Erkidegoan duten ontziei laguntzak emateko (agindu honen eranskinean jasotzen dira).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.— Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, betiere agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.— Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 2a.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAYA BARREDO MARTÍN.

ERANSKINA

1. oinarria.— Xedea.

Agindu honen xedea da 2026ko ekitaldirako laguntzen oinarriak ezartzea eta deialdia egitea, Bizkaiko Golkoan izurde arruntaren (*Delphinus delphis*) eta beste zetazeo txiki batzuen nahi gabeko harrapaketak murrizteko asmoz arrantza-jarduera aldi baterako eten behar izatea konpen-tatzeko. Jarduera-etena agintzen du Batzordearen 2025eko abuztuaren 11ko (EB) 2025/2593 Erregelamendu Eskuordetuak, (EB) 2019/1241 Erregelamendua aldatzekoak, Bizkaiko Golkoan izurde arruntaren (*Delphinus delphis*) eta beste zetazeo txiki batzuen nahi gabeko harrapaketak murrizteko neurrien luzapenari dagokienez.

2. oinarria.— Finantzaketa.

1.— Agindu honetan jasotako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen gehieneko guztizko zenbatekoa 263.750,00 euro da. Funts horietatik 184.625,00 euro, hau da, % 70, Euro-pako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsari (EIAAF) dagozkio, eta gainerako % 30a, hau da, 79.125,00 euro, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrari, zeinak 2026ko ekitaldiko ordainketa-kredituak baitira. Laguntzen zenbateko osotik 150.050 euro armadoreentzat izango dira, eta 113.700 euro arrantzaleentzat.

2.— Deialdi honen barruan emango diren laguntzek ezingo dute gainditu aipatutako aurre-kontu-zuzkidura. Horrenbestez, zenbateko oso hori agortu ondoren ez dira laguntza gehiago emango. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da inguruabar hori, Arrantzako eta Itsasertzaren Garapeneko sailburuordeak emandako ebazpen baten bidez.

3. oinarria.— Onuradunak.

Honako hauek izan daitezke agindu honetan iragartzen diren laguntzen onuradunak:

1.— Aldi baterako etenaldiak eragindako arrantza-ontzien armadoreak, Arrantza Flotaren Erre-gistro Nagusian aktibo gisa erregistratuta badaude eta laguntza-eskaera aurkeztu aurreko bi urteetan itsasoan gutxienez 120 eguneko arrantza-jarduera gauzatu badute.

Pertsonalitate juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridiko pribatuen elkarteen kasuan, edo ondasun-erkidegoen kasuan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 11.3 artikuluan xedatutakoa bete beharko da, eta, bereziki:

- Eskabidean eta dirulaguntza emateko ebazpenean berariaz jasota utzi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer konpromiso hartzen dituen proiektua egikaritzeko, bai eta bakoitzak dirulagun-tzaren zer zenbateko aplikatuko duen ere.

- Elkarreek ordezkari edo ahaldun bat izendatu beharko dute, eta behar besteko ahalmena eman, hark betearaz ditzan elkarteari onuradun gisa dagozkion betebeharrak.

- Elkarte hori ezingo da desegin harik eta dirulaguntzen araubidean aurreikusitako pres-kripzio-epea igaro arte.

- Elkarteko kide guzti-guztiak izango dira onuradun, eta onuradun izateak berekin dakartzan betebeharrak izango dituzte.

2.— Laguntza-eskaera aurkeztu aurreko bi urte zibiletan, gutxienez 120 egun itsasoan lan egin duten arrantzaleak, jarduera aldi baterako geldiarazi izanak eragindako arrantza-ontzietan ibili badira.

3.– Lehenengo apartatuan jasota dauden eta aldi baterako geldialdiak eragindako arrantza-ontzi batean eskifaia-kide gisa erroldatuta dauden arrantza-ontzietako armadoreek arrantzaleentzako laguntza jasotzeko eskubidea izango dute (aurreko apartatuan jasotzen dena).

4.– Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoa izango da urte zibila.

4. oinarria.– Onuradun izateko debekuak.

1.– Bat etorri Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluekin, ezingo dira onuradun izan kasu hauetako edozeinetan nahasturik dauden pertsonak edo entitateak:

a) Epai irmo bidez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorra jaso izana edo prebikazio, eroskeria, diru publikoen erabilera bidegabea, influentzia-trafiko, iruzur eta ordainarazpen ilegal edo hirigintza-delituak direla-eta zigorra jaso izana.

b) Hartzekodunen borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaera egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratu izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklaratu egotea (salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu), esku-hartze judizialaren mende egotea edo indarrean dagoen konkurtso-araudiaren arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontratu ebazpen irmoz suntsiarazteko arrazoiak sorrarazi eta haien errudun deklaratu izan direnek.

d) Aplikatzekoa den araudian aurreikusitako bateraezintasun-araubideko kasuren batean nahastuta egotea. 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzkoa eta 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituenak. Halaber, Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguren bat izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritakoaren arabera.

e) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez izatea.

f) Egunean ez izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritako baldintzetan (Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

g) Ebazpen irmo baten bidez, dirulaguntzak jasotzeko aukera galtzea dakarren zigorraren bat izatea. Zehazki, ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan sexuaren ziozko bereizkeria egi-teagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penala jaso duten pertsonak, kasuan kasuko zehapenean ezarritako aldian.

h) Zigortuta egotea Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legea edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, zuzenketa-neurri egokiak hartu eta zehapena ordaindu arte.

i) Desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota bete ez izana, hura betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla frogatu gabe.

j) LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatu izana, konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea barne.

k) Berreskuratze-agindu baten mende egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legeaz kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

l) Gainfinantzaketarik ez egiteko konpromisoa ez adieraztea.

2.– 1. apartatuko b), d), e), f) eta j) letretan jaso diren debekuak automatikoki hartuko dira aintzat, eta bere horretan iraungo dute kasu bakoitzean zehaztutako egoerek irauten duten bitartean.

3.– 1.e) apartatuan jasotako debekua Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6. eta 7. artikuluan xedatutakoaren arabera ezarriko da. Agindu hori, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da.

4.– Artikulu honetako 1. apartatuko a), g), h) eta i) letretan jaso diren debekuak automatikoki hartuko dira aintzat. Epai edo ebazpen irmoak zehaztuko du debekuaren irismena. Halakorik ez bada, irismena arauz zehaztutako prozeduraren arabera finkatuko da, eta ezingo da bost urtetik gorakoa izan, debekua ez bada epai irmo baten ondoriozkoa.

5.– Artikulu honen 2.c) apartatuan jasota dagoen debekua aintzat hartzeko eta haren noiz artekoa zehazteko, sektore publikoko kontratazioa erregulatzen duen arautegiak ezarritakoaren arabera jokatu da.

6.– Entitate eskatzaileek, dirulaguntza emateko proposamena egin baino lehen, egiaztatu beharko dute betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta itzuli beharreko dirulaguntzak -halakorik egin beharra baldin badute- itzulita dauzkatela. Dagokion laguntzaren edo dirulaguntzaren azken ordainketa egiaztatzen den arte, gutxienez, bete beharko dituzte betebeharrak horiek.

Betebeharrak horiek betetzen direla egiaztatzeko, administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztuko dira, zerga-organo edo Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko organo eskudunek emanak, hurrenez hurren.

Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak dokumentu horiek zuzenean organo eskudunei eskatuko dizkie, eskura dauden elkarreragingarritasun-sistemen bidez. Erakunde interesdunak berariaz ezetz erantzunez gero, berak aurkeztu beharko ditu ziurtagiriok.

7.– Entitateek, onuradun izateko debekurik ez dutela justifikatzeko (debekuok 1. paragrafoan datoz zehazturik), epaitegiko lekukotasuna, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak erabil ditzakete, betiere ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan ezarritakoaren arabera (Herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa), edo administrazio-ziurtagiria, kasuan kasu.

Agintaritza eskudunak ezin badu dokumentu hori eman, haren ordeztu, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, eskabide-eredu normalizatuari erantsita. Adierazpenean, beren beregiz identifikatu beharko da zein den betetzea deklaritzen den baldintza, 20/2023 Legearen 13.9 artikuluan eta 39/2015 Legearen 69. artikuluan arabera.

8.– Nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoz osatutako taldeetan, oinarri honetan aurreikusitako debekuak kide bakoitzari aplikatuko zaizkio, 20/2023 Legearen 11.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

5. oinarria.— Onuradun izateko baldintza zehatzak.

1.— Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko uztailaren 7ko (EB) 2021/1139 Erregelamenduaren 11. artikulua arabera (Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtza ezartzen duena eta (EB) 2017/1004 Erregelamendua aldatzen duena), ezin izango dira onuradun izan honako egoera hauetakoren batean dauden eskatzaileak:

– Eskaera ezin onartuzkoa izatea dakarren arau-hauste astun bat egin dutenak, (EE) 1005/2008 Erregelamenduaren 42. artikuluari edo (EE) 1224/2009 Erregelamenduaren 90.1 artikuluari jarraikiz.

– (EE) 1005/2008 Erregelamenduko 40.3 artikuluan jasotzen den Europar Batasuneko INDNR ontzien zerrendan sartutako arrantza-ontzien edo erregelamendu horretako 33. artikuluan zehazten diren hirugarren herrialde ez-kooperanteen bandera duten ontzien ustiaketan, kudeaketan edo jabetzan nahasia egon direnak.

– Arrantza Politika Erkidearen aurkako arau-hauste astunak egin dituztenak.

– 2008/99/EE Zuzentarauko 3. artikuluan zehaztutako delituetarik bat egin dutenak.

2.— Gainera, arrantza-ontzien armadoreek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Pertsona juridikoen kasuan, egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, eta, pertsona fisikoen kasuan, bertan erroldatuta egotea.

b) Ontzia Ontzien eta Ontzi Enpresen Erregistroko hirugarren zerrendan egotea eta oinarri-portua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

c) Ontzia alta emanda egotea Arrantza Flotaren Erregistro Nagusian, eta arrantza-lizentzia eta behar diren baimenak izatea, dagokion modalitatearen eta kalaren arabera. Ontzia aktibo dagoela jotzen da, baldin eta Arrantza Flotaren Erregistro Nagusian behin-behineko nahiz behin betiko alta-egoeran badago eta laguntza eskatu aurreko urtean zehar arrantzan jardun badu (aurreko 365 egunak zenbatzen dira, edo, aurreko urtea bisurtea bada, aurreko 366 egunak).

d) Itsasoan gutxienez 120 eguneko arrantza-jarduera egin izana eskaera aurkeztu aurreko bi urte zibiletan. Arrantza-ontzi batek 2 urte baino gutxiago badarama inskribatuta Arrantza Flotaren Erregistro Nagusian, eskaera aurkezten den egunean, ontzi horretarako eskatzen diren arrantza-jardueraren gutxieneko egunak honela kalkulatu dira: 120 eguneko proportzioa geldialdia hasi aurreko azken 2 urte zibiletan. Horrela, betekizun hori betetzeko itsasoan eskatzen diren jarduera-egunak honela kalkulatu dira: seirekin zatituko dira Arrantza Flotaren Erregistroko alta-egunak aldi horretan. Era berean, arrantza-ontzia ustiatzen 2 urte baino gutxiago daramaten armadoreen kasuan ere aplikatuko da sistema hori.

e) Enpresariak lan-agintaritzari egindako jakinarazpena aurkeztea, zeinaren bidez jakinarazi baita kontratuak eten direla edo lanaldia murriztu dela, eta ezinbesteko kasuetan lan-agintaritzaren ebazpena ere, Langileen Estatutuaren 47. artikuluaekin bat etorriz, geldialdia abiarazteko helburuarekin porturatu den azken egunean ontzian erroldatuta zeuden eskifaia-kide guztiei dagokienez. Kontratuen eteteak edo lanaldiaren murrizketak, ezinbesteko kasuetan, ezinbestea sorrarazi zuen egintzaren egun beretik izango ditu ondorioak, eta arrazoi ekonomikoen, arrazoi teknikoen, antolaketa-arrazoen edo produkzio-arrazoen kasuan, lan-agintaritzari jakinarazi zaion egunetik, salbu eta enpresariaren erabakian geroagoko beste bat ezartzen bada. Hala ere, ez da betekizun hori bete beharrik izango, baldin eta agiri bidez justifikatzen bada geldialdia abiarazteko helburuarekin ontzia porturatu denean ontziko eskifaia-kideen lan-kontratuak (daukaten izaeragatik) une horretan azkendu edo eteten direla, edota armadoreak ontziko eskifaia-kideak eurak badira eta Gizarte Segurantzaren autonomo gisa alta emanda badaude.

3.– Aldi baterako etenaldiak eragindako ontzian dauden arrantzaleek edo armadoreek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Arrantza-jarduera aldi baterako eten izanak eragindako arrantza-ontziren batean errolatuta egotea. Hala ere, arrantzale hauek ere jaso ahal izango dute laguntza: enpresarekin etengabeko harremana izan arren, aldi baterako etenaldiaren unean errolatuta ez zeuden arrantzaleek – ordaindutako baimena, oporrak, eszedentzia edota ontziratzeko zain egotea, adingabearen jaiotza eta zaintza, haurdunaldiko arriskua eta edoskitze naturaleko arriskua direla eta–, artikulua honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badituzte eta egoera hori etenaldiak dirauen bitartean bukatzen dela ziurtatzen badute.

b) Artikulu honen 1.e) apartatuan ezarritako lan-kontratuak eteteko edo lanaldia murrizteko prozeduran sartuta egotea etenaldia dela-eta porturatu zen egunean, abenduaren 29ko 1173/2015 Errege Dekretuaren 15.1.e) artikuluan ezarritako salbuespenetan izan ezik.

c) Gizarte Segurantzaren alta-egoeran egotea eta etenaldian zehar etengabeko lan-harremana izatea flota geldiarazi den unean errolatuta zeuden itsasontziko enpresa armadorearekin.

d) Itsasoan gutxienez 120 eguneko arrantza-jarduera egin izana eskaera aurkeztu aurreko bi urte zibiletan.

e) Lan-bizitza osoan zehar, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian gutxienez hamabi hilabeteko kotizazio-aldia egiaztatzea.

f) Aldi baterako etenaldiak dirauen bitartean berriz ere arrantza-jarduerari ez ekitea, beste ontzi batean errolatuta.

g) Arrantzaleek egunean izan beharko dituzte beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, ezingo dira ebazpen bidez agindutako itzulketa-prozedura batean zordun izan eta ez dira dirulaguntzak jasotzeko aukeraz gabetuta egongo epai irmo baten bidez.

6. oinarria.– Arrantza-jarduera aldi baterako eteteko betekizun espezifikoa.

1.– Jarduera aldi baterako eteteagatik konpentsazioa jasotzeko aldi konputagarria 30 egunekoa izango da, 2026ko urtarrilaren 22tik 2026ko otsailaren 20ra arte, asteko derrigorrezko atsedena dena kenduta.

2.– Ontzian arrantza pelagikoko sareak (PTM, OTM), bikoteko hondoko arraste-sareak (PTB), ingurasare ixtekodunak (PS), hondoko mailasareak (GNS), tresmailak (GTR) edo mailasare eta tresmail-sare konbinatuak (GTN) daramatzaten 8 metro baino gehiagoko ontziek Frantziako uretan gutxienez egun bateko jarduera egin behar izan dute, Frantziako eremu ekonomiko eksklusiboaren kanpoko mugaraino, IENBren 8. azpieremuaren barruan, 2022ko urtarrilaren 22tik 2022ko otsailaren 20ra bitartean eta 2023ko urtarrilaren 22tik 2023ko otsailaren 20ra bitartean. Baldintza hori aplikatzeko, eragindako eremuan harrapaketa egin diren eguna hartuko da arrantza-jardueraren eguntzat.

3.– Jarduera eten den aldian zehar, arrantza-jarduerarik eza erabatekoa izango da, eta ontziak portuan amarratuta egon beharko du etenaldiari dagokion aldi osoan zehar; hala, ontzia ezin izango da inolako jardueratarako atera. Portu horrek ez du nahitaez oinarri-portua izan behar. Egoera hori behar bezala jasota geratu beharko da abiarazte-zerrendan; gainera, bertan berariaz adieraziko da itsasontzia arrantza-jarduera aldi baterako geldiarazteko helburuarekin sartu dela portuan, eta, irteteko egunean, etenaldi hori amaitutzat eman dela adieraziko da.

Agintaritza eskudunak eskatutako eta segurtasun-arrazoiek eragindako itsasontziaren mugimenduak salbuespena geratu ahal izango dira, baita mantentze-lanak eta konponketak egiteko ontzitegira egindako lekualdatzeak ere (kasu horretan, onuradunak agiri bidez egiaztatu beharko du hori). Edonola ere, jarduera zehatz horietarako itsasontziaren portu-izapideak egin beharko dira, eta irteera-eguna eta helmuga-portura iritsi den eguna adierazi beharko dira.

Era berean, eta salbuespen gisa, itsasontziaren mugimenduak onartu ahal izango dira, baldin eta debekualdian edo aldi baterako etenaldian itsasontziek itsas jai tradizionaletan parte hartzen badute. Mugimendu horiek agiri bidez egiaztatu beharko ditu onuradunak, ekitaldi horretan parte hartu duten itsasontzien zerrenda aurkeztuta. Zerrenda hori ekitaldia antolatzen duen arrantzale-kofradiak ziurtatu beharko du. Zerrendan, ekitaldian parte hartzen duten itsasontzien izena edo kodea jasoko dira, lekualdatzearen eguna eta ordua, eta zein eremutan egin den.

4.– 2021eko uztailaren 7ko (EB) 2021/1139 Erregelamenduaren 21. artikuluan aipatzen diren itsasoko jarduera-egunak ofizioz egiaztatuko dira ontziak satelite bidez lokalizatzeko gailuen bitartez (VMS). Ontziek gailu horiek instalatuta izateko betebeharra ez badute, ontziko egunkari elektronikoen bitartez egiaztatuko dira. Ontziek aurreko bi gailu horiek instalatuta izateko betebeharra ez badute, arrantza-egunkarien bitartez egiaztatuko dira jarduera-egunak.

Gailu horiek ontzian instalatuta izateko edo arrantza-egunkariak betetzeko betebeharra ez duten gainerako ontzien kasuan, jarduera salmenta-oharren bitartez egiaztatuko da, betiere salmenta-oharrari dagokion eguna eta lehorreratze- edo harrapatze-eguna bat datozela bermatu badaiteke; era berean, itsasoko jarduera-egunak modu fede-emailean egiaztatzea ahalbidetzen duten beste gailu, dokumentu edo bitarteko batzuk erabili ahal izango dira. Itsasontziak satelite bidez lokalizatzeko gailuak dituzten itsasontzi guztiek piztuta izan beharko dituzte gailu horiek aldi baterako geldialdiak irauten duten bitartean. Aurreko bigarren paragrafoan aipatutako salbuespeneko kasuetan, helmugarako ibilbidean piztuta egon beharko du lokalizazio-gailuak, eta itsasontzian mantentze-lanak eta konponketak egiten diren bitartean itzalita edo deskonektatuta egon ahal izango da.

Itsasontziak debekualdian edo aldi baterako etenaldian, salbuespen gisa, itsas jai tradizionaletan parte hartzen badu, armadoreak edo patroiak, itsas prozesioa edo itsas jaia egin baino gutxienez zazpi egun lehenago, Arrantzako Idazkaritza Nagusiaren Itsasontzien Jarraipenerako Zentroari jakinarazi beharko dio. Jakinarazpen horretan itsasontziaren izena eta kodea zehaztuko dira, bai eta ekitaldia zein egunetan egingo den eta zer ordutegi izango duen ere. Itsasontziaren lokalizazio-gailuak piztuta egon behar du egun horretan egindako ibilbidean zehar. Hala ere, ez dela arrantzan aritu frogatzeko, kontuan hartuko dira agiri bidezko beste froga batzuk ere; besteak beste, harrapaketen deklarazioak edo salmenta-oharrak, armadoreak jaiegun horretan eta jai-ekitaldi horren ondorengo zazpi egunetan arrantzan egin duen egiaztatzeak; edo ikuskapenak egin daitezke ontzian, arrantza-aparailurik ez dagoela edo guztiz jasota daudela begiratzeko.

Ontzitegian sartzeagatik lokalizazio-gailua deskonektatzen bada, ontziolak edo ontzitegiak itsasontziaren sarrera eta irteerako egunak ziurtatu beharko ditu. Kasu horretan, interesdunak horren berri emango die Itsasontzien Jarraipenerako Zentroari eta laguntzak kudeatzeko organo eskudunari.

Gailuaren beraren edo itsasontziaren arazo teknikoengatik lokalizazio-gailua aldi baterako itzali edo deskonektatzen bada, armadoreak horren berri eman beharko dio Arrantzako Idazkaritza Nagusiaren Itsasontzien Jarraipenerako Zentroari, gailuak emititzeari utzi zion ordutik 48 ordura gehienez ere. Era berean, laguntzen organo kudeatzaileari agiri bidezko froga guztiak bidaliko zaizkio, itzaltzea edo deskonexioa eragin zuten inguruabarrak egiaztatzeak. Agiri bidezko frogatzat onartuko dira itsasontzian egindako konponketen edo mantentze-lanen fakturak, baldin eta interesdunak hori alegatu badu lokalizazio-gailua itzali edo deskonektatzeko arrazoi gisa.

Lokalizazio-gailuaren bateria agortzeak eragin badu itzaltzea, interesdunak, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, horren berri emango dio Arrantzako Idazkaritza Nagusiaren Itsasontzien Jarraipenerako Zentroari, gailuak emititzeari utzi zion ordutik 48 ordua gehienez ere, eta bateria berriz kargatuko den edo ordeztu egingo den adierazi beharko da. Gehienez ere, 48 orduko epea izango du beste bat jartzeko edo 24 orduko epea berriz kargatzeko. Bi kasuetan, itzali zen orduan hasiko da epea kontatzen, eta ez dira egun baliogabeak kontuan hartuko.

Beste bateria bat jartzen bada, agiri bidezko frogatzat onartuko da bateria berriaren erosketa-faktura, eta laguntzak kudeatzeko eskumena duen organoari aurkeztu beharko zaio.

5.– Arrantza-jarduera eten izana behar bezala egiaztatu beharko da, portura iritsi eta berehala Itsas Kapitaintzari rola aurkeztuz; dena den, hura aurrerago ere egiaztatu ahal izango da, aurreko apartatuan adierazitako gailuen bitartez. Itsasontzia ontzitegira lekualdatu behar bada, abiarazte-zerrenda helmugako Itsas Kapitaintzan utzi beharko da.

6.– Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak eskatuta, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Arrantza Antolatze Zuzendaritza Nagusiak ziurtatuko du zein egun eta ordutan itzali zen gailua, baita zein egunetan egon zen itzalita eta zein egun eta ordutan konektatu zen berriro. Era berean, interesdunak zein egun eta ordutan egin zuen jakinarazpena ziurtatuko du, eta bertan adieraziko du zer alegatu zuen interesdunak itzaltzea edo deskonexioa gertatzeko arrazoi gisa.

7.– Lokalizazio-gailua itzali edo deskonektatzeko arrazoi gisa interesdunak gerora azaldutako arrazoi teknikoren bat alegatzen badu, beste proba osagarri batzuk egingo dira egiaztatze. Proba horien bidez, egiaztatuko da harrapaketen deklaraziorik eta salmenta-oharrik dagoen gailua itzali edo deskonektatu den egunetik geldialdiari dagokion aldi konputagarria amaitzen den egunera arte, bai eta, gutxienez, aldi konputagarria amaitu eta hurrengo zazpi egunetan ere. Zazpi eguneko tarte hori zabaldu ahal izango da, diruz lagundutako geldialdia egin duen flotak arrantza-tzen duena merkaturatzeko dauden inguruabar zehatzak kontuan hartuta.

Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak eskatuta, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Arrantza Antolatze Zuzendaritza Nagusiak apartatu honetako aurreko paragrafoan aipatutako aldian egin diren harrapaketen deklarazioak eta salmenta-oharrak ziurtatuko ditu.

8.– Ontziak satellite bidez lokalizatzeko gailuak (VMS) erabiliz egiaztatuko dira arrantza-jarduerak eteteari eta ontzia portuan egoteari buruzko baldintzak; hortaz, VMS gailuek piztuta egon beharko dute aldi baterako, etenaldi osoan zehar.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, ontziek satellite bidez lokalizatzeko gailuak (VMS) izateko bete-beharra ez dutenean, instrukzio-organismoak ere egiaztatu ahal izango du arrantza-jarduerak eten direla eta ontzia portuan dagoela; VMS hori ez den beste baliabide batzuk erabili ahal izango ditu, hala nola arrantzako egunkari elektronikoa, itsasaldien erregistroa, salmenta-oharren bidez edo ontziaren jarduerarik eza egiaztatzen duen beste edozein agiri ofizialen bidez.

7. oinarria.– Eskaerak, agiriak eta aurkezteko epea.

1.– Arrantza eta Akuikulturako zuzendariari zuzenduko zaizkio laguntza-eskaerak. Eskaera horretan sartuko dira 3. apartatuan ezarritako eredu normalizatua, agindu honen bidez onartua, eta 7. apartatuan eskatzen den dokumentazioa.

2.– Eskaerak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartuta eta helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/servicios/1230404>

3.– Eskaerak aurkezteko, inprimaki-eredu normalizatua erabiliko da, helbide berean eskuragarri dagoena (<https://www.euskadi.eus/servicios/1230404>).

4.– Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Eskaera ordezkari baten bitartez egiten bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkaritza. Ildo horretan, eta agindu honen esparruan, ordezkaritza egiaztatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren ordezkarien erregistro elektronikoa inskribatuta badago (<https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>). Ordezkaritza ez badago erregistro horretan inskribatuta, borondatezko ordezkaritza emateko inprimaki normalizatua betez (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>) edo zuzenbidean onartutako beste edozein modutara egiaztatu beharko da ordezkaritza.

6.– Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.1 artikulua arabera, pertsona fisikoek aukeratu dezakete Administrazioarekin harremanetan jartzea elektronikoa ez diren bitarteko bidez; horrela, dagokion eskaera-inprimakiaren bidez eskatu ahal izango dute laguntza, eta inprimaki hori Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzaren bulegoetan eskura dezakete (ondoren zehazten diren helbideetan); arrantzaren arloan eskumena duen Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko zuzendaritzara jo behar dute, zuzenean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikulua xedatzen duen edozein bidetatik. Hona hemen Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzaren bulegoen helbideak:

– Eusko Jaurilaritza. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza, Donostia-San Sebastián kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz.

– Eusko Jaurilaritza. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Arrantza Egituren Zerbitzua. Concha Jeneralaren kalea 23, 2.– 48010 Bilbao.

– Eusko Jaurilaritza. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Arrantza Antolamenduko Zerbitzua. Easo kalea 10 – 20006 Donostia.

7.– Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte armadoreek:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzeko eskatzaileak, eskaera aurkezteko unean, agindu honetako betekizun guztiak betetzen dituela eta aurkezten dituen agiri guztiak egiazkoak direla, agindu honetako oinarrietako I. eranskinean jasotzen den ereduaren arabera.

b) Eraketa-eskrituraren kopia eta identifikazio fiskaleko txartela (pertsona juridikoek), eta erroldatze-ziurtagiria (pertsona fisikoek).

c) Eskatzailearen ordezkaritza-ahalmena egiaztatzen duen eskrituraren kopia.

d) Eskaera aurkezten den unean ez da beharrezkoa izango hirugarrenaren alta aurkeztea.

Hala ere, eskaria onartuta ere, laguntza ordaintzeko, ezinbestekoa da eskatzailea Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenaren Erregistroan inskribatuta egotea.

Inskribatuta ez badago edo han dituen datuak aldatu egin nahi baditu, betebeharra aitortu aurretik izapidetu beharko du izenematea edo datu-aldaketa. Elektronikoki egin ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen zerbitzuaren bidez. (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/hirugarrenaren-datu-aldaketa/>).

e) Dagokion portuko Itsas Kapitaintzan rola gordailutu izanaren ziurtagiria, une horretan ontziratuturik daudenen zerrenda eta guzti. Geldialdia noiz hasi eta noiz amaitzen den ere azaldu beharko du berariaz, bai eta geldialdiaren arrazoia ere.

f) Ontziaren titulartasunaren ziurtagiria, Merkataritza Erregistroak egina.

g) Enpresariak lan-agintaritzari egindako jakinarazpena, lan-kontratuak eteteko bere erabakiari buruzkoa; eta, ezinbesteko kasuetan, lan-agintaritzaren ebazpena, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak eragindako eskifaia-kide erroldatu guztiena.

h) Geldialdiaren ondoren rola bidaltzea, une horretan ontziratuta daudenen zerrendarekin.

8.— Erroldatutako arrantzaleek edo armadoreek baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, etenaldiak eragindako ontziaren armadoreak aurkeztutako dokumentazioa aztertuko da. Hala ere, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte eskaerarekin batera:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzeko eskatzaileak, eskaera aurkezteko unean, agindu honetako betekizun guztiak betetzen dituela eta aurkezten dituen agiri guztiak egiazkoak direla, agindu honetako oinarrietako I. eranskinean jasotzen den ereduaren arabera.

b) Lan-bizitzaren ziurtagiria, eguneratuta.

9.— Dirulaguntza-eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak baimena ematen diola Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari zuzenean eskuratu ditzan beste edozein administrazio publikok egindako agiri guztiak, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan.

10.— Ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoa aplikatuz (herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa), eskatzaileek administrazio honetan edo beste edozein administrazio publikotan aurkeztu badute eskatutako dokumentazioa, eta berariaz adierazten badute ez dela aldaketarik izan, ez dute dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Alabaina, dokumentu horiek noiz eta zer administrazio-organotan aurkeztu dituzten adierazi beharko dute. Prozeduran eskatzen diren datu eta agiriak kontsultatu edo bildu eta egiaztatuko ditu Administrazioak, eta ez da interesdunen adostasunik eskatuko Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 72.1 artikuluan aipatutako kasuetan.

Hala ere, interesdunek aurka egin ahal izango dute. Horrelakoetan, interesdunak berariaz alegatu beharko ditu aurka egitea eragin duten arrazoiak, eta tratamenduaren arduradunak haztatuko ditu. Interesdunak tratamenduari aurka egiten diola adierazten badu, dokumentuak aurkeztu beharko ditu, hargatik eragotzi gabe eskabidearen hartzaile den organoaren egiaztatze-ahalak.

11.— Laguntza jasotzeko eskaera, eskatutako dokumentazioarekin batera, nahi den hizkuntza ofizialean aurkez daiteke. Gainera, laguntzen eskaeraren ondoriozko jardueretan eta prozedura osoan zehar, entitate eskatzaileak aurkezten duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen arabera.

12.— Hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaerak betekizun guztiak betetzen ez baditu, interesdunari jakinaraziko zaio hamar eguneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezkoak diren agiriak eranstekoa. Halaber, adieraziko zaio, horrela egin ezean, atzera egin duela joko dela, hirugarrenaren altari dagokionez izan ezik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako moduan emango den ebazpen baten bitartez.

13.– Aurkeztutako eskaeran adierazitakoa egoki ulertu, ebaluatu eta eskaera izapidetzeko beharrezko iritzitako bestelako argibide edo agiri osagarriak eskatu ahal izango zaizkio eskatzaileari.

14.– Prozeduran, jatorrizko dokumentuak edo kopia autentikoak aurkeztu beharko dira, hala baitago xedaturik urriaren 1eko 39/2015 Legeko 27. artikuluan.

8. oinarria.– Laguntzak kudeatzen dituen organoa, laguntzak emateko prozedura eta interes-gatazka.

1.– Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari dagokio prozedura hau kudeatzea. Horretaz gain, txosten bat egin beharko du, jasota utziz eskura duen informaziotik ondorioztatzen dela eskatzaileak laguntza eskuratzeko behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Txostena Arrantzako eta Itsasertzaren Garapeneko sailburuordeari bidaliko zaio, hura baita organo eskuduna.

2.– Segidako prozeduraren bitartez ebatziko da deialdia, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Eskatzaileek oinarri hauetan ezartzen diren betekizunak bete besterik ez dute egin beharko; haien artean ez da konparaziozko balioespenik egingo, ez eta baterako aintzatespenik ere. Egiten diren eskaerak ordenan ebatziko dira, espedientea osatuta dagoen unearen arabera.

3.– Prozedurak aurrera egin ahala, hartu beharreko neurriak hartuko dira ez dadin interes-gatazkarik gertatu eskabideen balorazioan edo prozeduraren ebazpenean parte hartzen dutenen artean, hala xedaturik baitago Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 8.5 artikuluan eta funtsen kudeaketaren arloan aplikatu beharreko Europako araudian.

Horregatik, esku hartzen dutenek ziurtatu beharko dute ez daukatela interes-gatazkarik; eta, legez bateraezinak diren kasuetan, atzera egin beharko dute.

9. oinarria.– Behin-behineko ebazpen-proposamena.

1.– Arrantza eta Akuikulturako zuzendariak, espedientea eta aurreko oinarriko 1. apartatuak apatzen duen txostena ikusita, behar bezala arrazoitutako behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

2.– Entzunaldiaren izapidea alde batera utzi ahal izango da, baldin eta prozeduran ez badira agertzen eta ez badira kontuan hartzen interesdunek azaldutako egitate, alegazio eta frogez bestelakoak. Kasu horretan, behin-behineko ebazpen-proposamena behin betikoa izango da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21.3 artikuluari jarraikiz.

10. oinarria.– Behin betiko ebazpen-proposamena.

1.– Alegazioak aztertuta, halakorik balego, eta ondorengo apartatuetan adierazten diren alderdiak egiaztatuta, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariak behin betiko ebazpen-proposamena emango du, dirulaguntzen hartzaile izateko proposatzen den eskatzailea adierazita.

2.– Eskatzaileek dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, dirulaguntzak emateko proposamena jaso baino lehen. Egiaztapen hori Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 7. artikuluen arabera egingo da. Agindu hori, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da. Era berean, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek automatikoki egiaztatuko dute egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta haren IFKa eta erroldatze-agiria ere.

Hala ere, entitate eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio uko egiaztatze horri, baina, orduan, adierazitako agiriak aurkeztu beharko ditu.

3.– Onuradun gisa proposatutako pertsonen erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoak egiazkoak direla egiaztatu beharko dute, ordeztutako dokumentazioa aurkeztuz.

4.– Behin betiko ebazpenaren proposamena Arrantzako eta Itsasertzaren Garapeneko sailburordeari helaraziko zaio, hura baita ebazteko eskumena duen organoa.

5.– Behin-behineko eta behin betiko ebazpenaren proposamenek ez diete administrazio-arloko eskubiderik ekartzen onuradun izateko proposatuta daudenei.

11. oinarria.– Laguntzaren zenbatekoa.

Ontzietako armadoreentzako laguntzaren gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, aplikatu behar den baremoa erabiliko da. Kalte-ordainaren zenbatekoa honako formula hau baliatuta aterako da*:

$[(\text{kostu finkoaren prima} \times \text{GT}) + (\text{lortu gabeko irabazien prima})] \times \text{diruz lagundu daitekeen egun-kopurua}.$

*Jasoko den gutxieneko zenbatekoa: 134 euro eguneko. Gehieneko zenbatekoa: 2.000 euro eguneko.

Primak taula honen arabera kalkulatu dira:

Arrantzarako aparailuak		Kostu finkoaren prima Zenbatekoa/GT/eguna Euro	Lortu gabeko irabazien prima Zenbatekoa/eguna/ontzia Euro
Artisau-arrantza (12 metro baino gutxiago)		19,79	25,22
Gainerako flota	DFN (maila-sareak), DRB (dragak eta arrastoak), FPO (nasak), PMP (balioaniztun finkoak eta mugikorak), PGP (balioaniztun finkoak)	6,66	26,42
	HOK (amua)	5,87	69,19
	DTS (arraste)	6,22	84,62
	PS (inguraketa)	6,81	157,57

Ondorio horietarako, tonaje gordinaren (GT) zenbakia itsasontziko inskripzio-orrian agertzen dena izango da.

2.– Erroldatuta dauden arrantze eta armadoreentzako laguntzaren zenbatekoa honela kalkulatu da: eguneko lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza bider diruz lagundu daitekeen egun-kopurua eginda ateratzen den zenbatekoa.

3.– Armadoreentzako laguntzak kalkulatzeko diruz lagundu daitekeen aldiaren iraupena berbera izango da etenaldiak ukitutako itsasontzi guztientzat, bakoitzaren oinarri-portua edozein dela ere.

12. oinarria.– Prozedura ebaztea, errekursoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitatea.

1.– Arrantzako eta Itsasertzaren Garapeneko sailburordeari dagokio laguntzak ebaztea, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariak proposatuta. Hala ere, aurretik, txosten bat egin beharko da, non jasoko baita zuzendaritzaren esku dagoen informaziotik ondorioztatzen dela onuradun gisa

proposatutako eskatzaileak dirulaguntzak jasotzeko behar diren baldintza guztiak betetzen dituela. Ebazpenak barnean hartu beharko du Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.3 artikuluan aurreikusitakoa.

2.– Ebazpenaren gutxieneko edukia:

a) Pertsona edo entitate onuradunaren nortasuna. Onuraduna nortasunik gabeko pertsona fisiko edota juridikoen talde bat izanez gero, taldearen identitateaz gain taldeko kideak ere agertuko dira, onuradun izaera izango dutenak, bakoitzari dagokion zenbatekoa adierazita.

b) Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eta Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtsaren (EIAAF) kontura diruz lagundutako zenbatekoa.

d) Ordaintzeko modua eta epeak.

e) Agindu honen babesean eman dela.

f) Dagokionean, laguntza ukatzeko arrazoia.

3.– Prozedura ebazteko eta ebatzitakoa jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igarota, hurrengo 4. apartatuan ezarritako argitalpena egin ez bada, entitate interesdunek ulertu behar dute dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, oinarri honen 5. apartatuan adierazitako gora jotzeko administrazio-errekurtsoa jartzearen ondorioetarako.

4.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitalpena jakinarazpentzat hartuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluari jarraikiz.

5.– Arrantzako eta Itsasertzaren Garapeneko sailburuordeak laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango dio interesdunak Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo hiru hilabeteko epean, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluekin bat etorritik.

13. oinarria.– Onuradunen betebeharrak orokorrak.

Orokorrean, agindu honek arautzen dituen laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

1.– Eman zaien dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, baldin eta dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena hartu eta hamar egunean onuradunek ez badiote berariaz uko egiten, onartu egiten dutela ulertuko da.

2.– Eman den helburu zehatzerako erabiltzea laguntza.

3.– Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eta Europar Batasunaren esku jartzea arrantza-jarduera aldi baterako eten dela egiaztatze behar diren agiri guztiak.

4.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, agindu honen kontura jasotako laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eginkizunen barruan, eskatzen dieten informazio guztia ematea.

5.– Jasotako funtsak zertarako erabili diren frogatzen duten agiriak gordetzea, bai eta elektronikoak ere, egiaztatu eta kontrolatzeko eskatu ahal izango baitira. Era berean, Europako Batzordearen eta Europako Kontuen Auzitegiaren eskura jarri beharko dira diruz lagundutako gastuei dagozkien egiaztagiriak, bi urteko epean, eragiketaren gastuak jasotzen dituzten kontuak aurkeztu eta hurrengo abenduaren 31tik aurrera, eragiketa amaitu ostean.

6.– Beste administrazio edo ente publiko edo pribatu batzuetatik beste dirulaguntzarik jaso baldin badu helburu bererako, jakin bezain laster Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari jakinaraztea idatziz, hartara bateragarritasun-araubidea betetzen ote den egiaztatu dezagun, eta gainfinantzaketa egon ez dadin.

7.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat, objektiboa zein subjektiboa, aldatuz gero, horren berri izan bezain laster jakinaraztea Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari, eta, edozein kasutan, jasotako funtsen erabilera justifikatu aurretik.

8.– Merkataritza-legeriak eskatutako terminoetan ikuskatutako kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentu guztiak izatea, eta kontabilitate-kode egoki bat edo kontabilitate-sistema bereizi bat mantentzea deialdi bakoitzean finantzatutako inbertsioarekin lotutako inbertsio eta gastu guztietarako, araudiak finkatzen dituen kontrolak egin ahal izateko.

9.– Diruz lagundutako gastuen eta jardueren inguruan egindako publizitate edo informazio guztietan erraz ikusteko eta ulertzeko moduan adierazi beharko da horiek alde batetik Europako Itsas, Arrantza eta Akuikultura Funtzarekin (EIAAF) finantzatuta daudela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko uztailaren 7ko (EB) 2021/1139 Erregelamenduaren 60. artikuluan xedatutakoarekin bat, eta bestetik, Eusko Jaurlaritzaren funtsekin, abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak araututako Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan zehaztutakoari jarraikiz.

10.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. eta 46. artikuluetan ezarritako eginbeharrak betetzea, bai eta itzulketen araubidetik datozenak ere (araubide hori 20/2023 Lege horretako 42. artikuluan dago aurreikusita).

11.– Laguntza onartzeak berekin dakar onuraduna eragiketen zerrenda publiko batean sartzea. Zerrenda hori elektronikoki edo beste bide batzuetatik argitaratuko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko uztailaren 7ko (EB) 2021/1139 Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz.

12.– Enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzea, Dirulaguntzen Araudia Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezartzen den moduan.

13.– Laguntza jaso duen arrantza-ontzi baten jabeak ezin izango du ontzi hori transferitu Europar Batasunetik kanpora, laguntza hori ordaindu zaion egunetik hasi eta hurrengo bost urteetan gutxienez. Ontzia denbora-tarte horretan transferitzen bada, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak bidegabe ordaindutako zenbatekoak berreskuratzeko izapideak hasiko ditu, apartatu honetan ezarritako betekizuna bete ez den aldiaren proportzioan, hori guztia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko uztailaren 7ko (EB) 2021/1139 Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

14. oinarria.— Laguntzak ordaintzea.

1.— Laguntzak ordainduko zaizkie onuradunei, gehienez ere hiru hileko epean laguntzaren ebazpena ematen denetik aurrera.

2.— Dirulaguntza hauek emateko eta, hala egin behar bada, ordaintzeko, ez da beharrezkoa izango izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedurak amaitzea, hargatik eragotzi gabe Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 34. artikuluan aurreikusitako kautelazko neurriak hartzea.

15. oinarria.— Atzera egitea eta uko egitea.

1.— Laguntza eskatzen duen entitateak atzera egin ahal izango du bere eskaeran. Eskatutako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi baino lehen egin beharko du atzera. Atzera egiteko, halaxe egin dela egiaztatzea ahalbidetzen duen edozein modu erabiliko da, eta Arrantza eta Akuikulturako zuzendaria izango da, ebazpen bidez, atzera egite hori erabat onartu eta prozedura bukatutzat joko duena entitate horri dagokionez.

2.— Emandako laguntzari uko egin ahal izango dio entitate onuradunak. Emandako laguntza onartu ondoren eta gastua egiten bukatu aurretik egin ahal izango dio uko laguntzari, baldin eta Administrazioak ez badu inolako ordainketarik egin.

Uko egiteko, hala egin dela jasota uzten duen edozein bitarteko erabil daiteke. Uko-egite hori Arrantzako eta Itsasertzaren Garapeneko sailburuordeak onartuko du, berariaz; eta, entitate horri dagokionez, prozedura bertan amaitutzat emango du. Uko-egite horrek ez du eraginik izango onartuta dituen betebeharretan, eta ez du eragotziko erantzukizunak eskatzea edo aurreko jardueretatik eratorritako itzulketa- edo zehapen-prozedurak izapidetzea, halakorik egin behar bada.

3.— Uko-egitea prozeduraren edozein unetan aurkeztu ahal izango da. Hala ere, urraketaren bat gertatu dela edo zehapena jarri behar dela deklaratzeko prozedurarik hasita baldin badago, uko egite horrek ez du eragotziko prozedura horren aurrera-egitea edo ebazpena, eta, azkenean erantzukizunik eskatu behar bada, horretan ere ez du eraginik izango.

16. oinarria.— Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzaren bat aldatu egiten bada (betiere xedea aldatu gabe eta hirugarrenen eskubiderik kaltetu gabe), Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari idatziz jakinarazi eta arrazoitu egin beharko zaio, eta gerta daiteke, ondorioz, laguntza emateko ebazpena ere aldatzea.

Zehazki, ebazpena aldatu ahal izango da baldin eta dirulaguntza emateko egon ziren arrazoiak ere aldatu egin badira; baldin eta aldi berean beste laguntza edo dirulaguntzari jasotzen bada helburu bererako; edo baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzea dakarren beste edozer gertatzen bada.

Aldaketa egiteko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa bete beharko da. Horretarako, dagokion aldaketa-ebazpena emango du Arrantzako eta Itsasertzaren Garapeneko sailburuordeak.

17. oinarria.— Ez-betetzeak.

1.— Baldin eta entitate onuradunak ez badu betetzen agindu honetako betebeharren bat edo dirulaguntzak emateko ebazpenak ezartzen duen baldintzaren bat, edo dirulaguntza edo laguntza publikoak itzultzera behartzen duen egoeraren batean badago Dirulaguntzen Araubidea

Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikulua arabera, Arrantzako eta Itsasertzaren Garapeneko sailburuordeak, ebazpen baten bidez, dirulaguntza jasotzeko eskubidea kenduko dio (osorik ala partez) onuradunari, eta, hala badagokio, aginduko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko hartu dituen laguntzak (osorik ala partez, proiektuaren egikaritze-mailarekiko modu proportzionalen) eta dirulaguntzen arloan aplikagarriak diren berandutze-interesak, bat etorritz Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuarekin eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluaekin. Aipatutako diru-zenbateko horiek zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

2.– Arrantza eta Akuikulturako zuzendaria izango da organo eskuduna itzulketa-espedientea abiarazi eta izapidetzeko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40.1 artikuluan adierazitako deskontzentrazioaren arabera.

3.– Itzultze-prozedura administrazioko arau-hauste baten ondorioa bada, eskumena duen organoari jakinaraziko zaio dagokion zehatze-prozedura hasteko.

18. oinarria.– Bateriaezintasunak.

Aldi baterako eteteko laguntza bateraezina izango da etenaldian beste edozein administrazio publikotatik edo entitate pribatutatik jasotako edozein prestaziorekin (langabezia-prestazioa, desgaitasun-prestazioa, etab.).

19. oinarria.– Datu-babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko: Arrantza-sektorerako laguntzak.

– Arduraduna: Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza; Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

– Helburua: deialdiko laguntzak kudeatzea, haien jarraipena egitea, haiek kontrolatzea eta, hala egin behar bada, egiaztatzea, bai eta laguntza horien ondorioz egin beharreko administrazio-jarduketak egitea ere.

– Legitimazioa: Misioa interes publikokoa da, eta tratamenduaren arduradunari botere publikoak eman zaizkio bere zeregina burutzeko. Misio hori betetzeko edo botere horiek baliatzeko da beharrezkoa tratamendua, eta hala behar du izan bai Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua arabera bai dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko araudiaren arabera.

– Hartzaileak: datu-lagatzailearen eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoak burutzeko beharrezkoa baldin bada zuzenean, datuak jakinarazi ahal izango zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako beste organo batzuei; Estatuko Administrazio Orokorrari, bereziki Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari; eta Europar Batasuneko erakundeei, laguntzen finantzaketaren esparruan.

– Datuak gordetzea: datuak prozedura izapidetzeko behar den bitartean gordeko dira, bai eta legeko betebeharrak betetzeko eta balizko erantzukizunak eskatzeko legez aurreikusitako epeetan ere.

– Eskubideak: interesdunak eskubidea du datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta tratamendua mugatzeko, tratamenduaren aurka egiteko eta datuen tratamendu

automatizatuan soilik oinarritutako erabakien mende ez egoteko ere, datuak babesteko araudian ezarritakoaren arabera.

– Datuak babesteko ordezkaria: Eusko Jaurlaritzak badu ordezkari bat datuak babesteko. Helbide elektroniko honetan dago: dpd@euskadi.eus

– Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta xehea duzu helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/001600-cap2-eu.shtml>

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Lege-debekuren baten pean ez izatearen erantzukizunpeko adierazpenak:

Nik, _____ [nire izenean] / [nik ordezkatzeko dudako entitatearen izenean],

nire erantzukizunpean ADIERAZTEN DUT betetzen ditudala laguntza jasotzeko Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako eskakizunak, eta ez nagoela aipatzen diren gainerako lege-debekuetako ezeinen pean, _____ dirulaguntzen programari dagokionez (____/____/____(e)ko EHAAr argitaratua, ____ zk.) (informazio hori deialdi bakoitzerako ezarriko da oro har):

- Ez dudala galdu dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera epai irmo bidez, eta ez nagoela kondenatuta delitu hauetako bat egiteagatik: prebikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

- Ez dudala egin hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaririk, ez nagoela kaudimengabetzat deklaraturik ezein prozeduratan, ez nagoela hartzekodunen konkurtsoan deklaraturik –konkurtso horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada salbu–, eta ez nagoela epailearen esku-hartzearen mende edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta, hartzekodunen konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

- Ez dudala eragin Administrazioarekin egindako ezein kontraturen amaiera irmoa, kausaren batean errudun deklaraturik izateagatik.

- Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daudela lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko Eusko Legebiltzarraren 1/2014 Legea; edo ez direla Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko kargudunak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

- Egoitza fiskala ez dudala erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako ezein herrialde edo lurraldetan.

- Egunean dut dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrean kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

- Ez dudala galdu dirulaguntzak eskuratzeko aukera epai irmo bidez, hala xedatzen duen edozein legeri jarraituz. Zehazki, ez dudala jaso zehapen administratibo edo penalik sexuan oinarritutako diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-arloko araudia ez betetzeagatik, eta, jaso badut, kasuan kasuko zehapenean ezarritako aldia igarota dagoela.

- Ez dudala urratu estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izateko betebeharra, ez eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko estatu-legeriak xedatutako baldintzetan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezartzeko betebeharra ere (50 langiletik gorako enpresak).

- Elkarte ordezkatuak ez izatea Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatueta adierazitako debeku-kausarik.

- Entitate ordezkatuaren inskripzioa egiteko administrazio-prozedura ez dagoela etenda ez-zilegitasun penalaren zantzu arrazionalak aurkitzeagatik (bat etorri Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoarekin), harik eta ebazpen judizial irmoa eman eta dagokion erregistroan inskribatzeko aukera ematen zaion arte (elkarteentzat. Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.4 artikulua).

- Ez dudala LGTBI-fobia gauzatu, bultzatu edo sustatu, bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea barne (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).

- Ez egotea zigortuta Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, neurri zuzentzaile egokiak hartu eta zehapena ordaindu arte.

- Desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota bete dudala, eta, bete ez badut, hura betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla frogatu dudala.

- Fundazioen kasuan, haien estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean xedatutakora egokitu direla, eta egokitzapen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu izana (Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 1. xedapen iragankorra).

- Ez dudala jaso enpresa-deslokalizazioaren deklaraziorik, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 51. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak bete ditudala, legeak ezarritakoari jarraikiz. (Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6.6 eta 8. artikuluetako kasuetan).

- Eskatutako laguntza-jarduera berberetarako onartuta edo ordainduta dauden beste batzuekin bateragarria izatea baimenduta egonik, ez dudala gainfinantzaketarik. Nolanahi ere, etorkizunean helburu bererako jasotakoak jakinarazi beharko dira, laguntza likidatu arteko aldiari. (Betiere deialdiak beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna aurreikusten badu).

- Aurreko hiru ekitaldietan jasotako *de minimis* laguntzen zenbateko osoak 300.000 euroko muga ez gainditzea laguntza hau eman aurreko hiru urteetan –muga hori Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan dago jasota, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoan–, ezta gainerako arauetan *de minimis* mekanismo horretarako berariaz ezarritako beste muga batzuk ere. (De minimis mekanismoari atxikitako laguntzen kasuan).

Betekizunak bete izanaren eta aurkeztutako datuen zehaztasunaren erantzukizunpeko adierazpenak:

- Indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen ditudala.

- Egiazkoak eta osoak dira eskaera honetako datu guztiak, baita aurkezten ditudan agiri guztiak ere, eta neure gain hartzen dut horren erantzukizuna (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, orduan ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).